

Aretxa gazeta

Internet: www.saretxo.es/aretxagazeta
e-mail: aretxagazeta@saretxo.es.

Aretxabaleta • 1997ko azaroak 20 • 133. zka.



**Galartzako abatetxean,
Leintzgain natur etxea prest**

Gellaotarrak atxabaltartu guran

Akordeoi orkestrak


Kirolak: Xabi Lasaqabaster



Aldibi Autoak, S.A

Zigorrola, 1
ARRASATE
Tel.: 71 20 02
Faxa: 79 65 65

Hemen zure amets guztiak bete daitezke.



Volvo

Auto Suecia, S.A.



Mercedes

Izar Autoak, S.L.



Hyundai

Musakola Autoak, S.L.



Chrysler

Co-Car, S.A.



Mazda

Musakola Autoak, S.A



Nissan

Aldibi Autoak, S.A



LASAGABASTER

LASAGABASTER

Zure Konfiantzazko Denda

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE
TFNOAK.: 79 27 27 / 79 13 55

OPEL



Zerbitzu Ofiziala

Kotxe marka guztien konponketak

Basabe Poligonoa, A-1-3
Tfnoak: 79 62 65 / 79 20 86 / Fax: 77 17 20
ARETXABALETA



Nongo ura edaten duzue etxean?

Indelfonso Lorenzo

(Jubilatua)

Txorroko ura edaten dugu. Uste dut ur ona dela. Nik ura bakarrik edaten dut eta txorroko ura kalitate onekoa dela uste dut..

Oraingo egunetan ez diot urari zapore berezirik hartu.



Miren Aranzabal

(Langilea)

Baserrian bizi naiz eta bertako ura edaten dugu. Kalean ur botilak erosteko ohitura daukat.


Nik ez diot zapore aldatetarik igartzen.



Ascension Vales

(Langilea)

Txorroko ura edan izan dugu beti. Orain egun batzuk zapore arraroa zuen agian eguraldi aldaketagatik izango zen, ez dakit.



Jose Luis Santander

(Langabetua)

Etxeko txorroko ura edaten dugu etxean. Nire ustez ur ona da. Beti antzeko gustoa hartu izan diot, aldaketa nabarmenik igarri barik.



e s k u t i t z a



Saretxoren zabaltzea

Azaroaren 20tik aurrera irekiko da Saretxo elkarteak Nafarroa 4 zenbakian duen lokala. Hasiara batean, lokala asteartetik ostiralera 7etatik aurrera zabaltzea pentsatzen dugu.

Momentu honetan, lau ordenagailu ditugu sarean jarrita, eta guztientzako den "Deskjet4P 520" inpresora. Ostiral honetarako "Proxy" ak ordenadore bakoitza internetekin konektatuko digula espero dugu.

Elkartearen aurkezpen ofiziala laster egitea pentsatzen dugu. Hala ere, interesatuta dagoen edonork bisita gaitzake eta nahi izan ezker elkarteko bazkide egin.

SARETXO KULTUR ELKARTEA
saretxo@saretxo.es.



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria



Aretxabaletako Udalak diruz lagundutako aldizkaria

Argitaratzailea: Aretxagazeta Elkarte, Kultur etxea, Aretxabaleta. Tfnoa: 79 01 05, 151 postakutxatila. **Zuzendaria:** Ana Eriz. **Erredakzio-kontseilua:** Ines Maria Gartzia, Arantxa Eguren, Naiara Arrese, Unai Loidi, Mirari Altube, Irupe Iturbe, Alberto Izagirre, **Publizitate eta erredakzio arduraduna:** Iratxe Bengoa. **Kolaboratzaileak:** Mikel Arroiabe, Gorka Etxabe, M.J. Aretxaga, Andoni Arana, Jennifer Nelson, Amaia Murgiondo, Amagoia Lasagabaster, Joseba Lopez de Armentia, Josu Urkia, Inma Miguel, Aitor Antxia, Iñaki Urreta, Loramendi E. E., Udala, Euskaltegia. **Inprimategia:** Eguzkigraf. **Tirada:** 2.500 ale. Aretxagazeta paper birziklatuan egiten da. **Lege gordailua:** SS378 / 94. **ISSN:** 1134-2609. **Internet:** www.saretxo.es/aretxagazeta **e-mail:** aretxagazeta@saretxo.es. Aretxagazeta aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin.

“Leintz Bailarak 500 urte Gipuzkoan” ospakizunak zapatuan

□ Abenduaren 15etik aurrera “Leintz Bailarak 500 urte

Leintz Bailara Gipuzkoa izatera pasa zela 500 urte bete dira aurten. Datorren zapatuan, hilak 22, ospakizun ekitaldia burutuko da. Goizeko 11etan “Leintz Bailarak 500 urte Gipuzkoan” erakusketaren inaugurazioa egingo da Eskoriatzako kultur etxean.

Jarraian, eguerdiko 12,30etan oroitzapenezko ekitaldia egingo da Azatzako Otalora jauregian. Ondoren, luntxa izango da bertara biltzen diren guztientzat.

Ospakizunetara bertako baita kanpoko jendea ere etorriko da: Eskoriatza eta Aretxabaletako alkateak, zinegotziak, auzoalkateak, Mankomunitateko alkateak eta baita Diputatuak ere. Azken hauek bazkaria izango dute, antolakuntza lanetan ibili den

lantaldeaz batera.

Ekitaldia antolatzen 10 bat laguneko taldea ibili da, horien artean Eskoriatzako eta Aretxabaletako kultur teknikariak.

Aintzinako erakusketa

Datorren zapatuko ospakizunean, “Leintz Bailarak 500 urte Gipuzkoan” erakusketaren inaugurazioa egingo da Eskoriatzako kultur etxean. Erakusketa interesgarria izango da, aintzinako hainbat elementuz osatuta: ofizio zaharrak, jantziak, etnografia, idatzi zaharrak, etabar. ikusi ahal izango dira bertan.

Erakusketa hasieran Eskoriatzan egongo bada ere, abenduaren 15etik aurrera Aretxabaletan egongo da ikusgai.



Atzeratuen aldeko jaialdia

Aratz, atzeratuen aldeko elkar-teak, Ttanttaka taldearen “Umekeriak” antzezlanaren antolatutako azaroaren 29rako. Iaz antolatutako antzerkiak izan zuen arrakasta ikusita, aurtengo urterako ere beste antzerki batean pentsatu dute. Antzezlan honetan ere, Jose Ramon Soroziz arituko da antzezle lanetan. Azaroaren 29an gaueko 10etan izango da Zاراia zineman.

Lau urteko gartzela zigorra Kepa Urraren torturatzailleentzat

Bizkaiko Audentzi Nazionalak lau urte, bi hilabete eta egun bateko kartzela zigorra eta sei urte eta egun bateko inhabilitazioa ezarri die 1992. urtean Basaurin Kepa Urria atxilotu eta ondoren, hau torturatu zuten hiru guardia zibilei. Aretxabaletako amnistiaren aldeko batzordeak bere poza adierazi du torturatzaillei ezarritako zigorra dela eta, baina hau ez dela kasu bakarra azpimarratu nahi izan dute eta horrelako kasuak asko ematen direla.

Gazte asanblada sortu berri da herrian

Herriko zenbait gazte elkartu eta herriko gazteentzat topagune izan nahi duen taldea sortu dute. Oraindik ezer garbirik finkatu ez badute ere, gazteak informatu, motibatu, entzun eta hauen beharrei erantzutea du helburua. Alde horretatik, hutsune nabarmena antze-man dute herrian talde honen sorreran parte hartu dutenek. “Taldeak ez du ideologia politikorik”, Nerea Altunak taldeko kide batek azaldu duenez, “besteak beste, gazteei zuzendutako ekintzak antolatu nahi ditugu, hitzaldiak, ikastaroak, irteerak, etabar, modu honetan gazteengan gai desberdinekiko

motibazioa sortzeko”. Ekintza hauek antolatzerako orduan herriko elkarte desberdinegan jotzea ere pentsatu dute, ikastaro desberdinak antolatzeko, mendi irteerak...

Sortu berri den taldean 15 bat lagun daude, baina taldea herriko gazteei irekia izatea nahi da, “gazteoi interesatzen eta erakargarriak diren gaiak lantzeko”.

Oraindik hasiera besterik ez da eta “mila ekintza ikusten ditugu egiteko”.

Taldeari sorrera emateko azaroaren 21ean Homosexualitateari buruzko hitzaldia antolatu dute gaueko 10etan Urbaltz elkartearen.

Okindegia - Gaztegia

Aretxabaleta

Mitarte, 1-Tfnoa: 77 00 81

Aretxabaleta

Bertako okina

ZARAIA

TABERNA

Goizeko 5,30etatik zure zerbitzuan

MANTEKA ANAIK

ESKORIATZA

Tfno 714345

ERRETEGIA

Bazkari eta afariak

MENDIOLA

Astelehenetan itxita

ESKORIATZA

Urkuluko uraren zapore aldaketa

☐ Temperatura aldaketaren ondorioz urtero gertatzen den fenomenoak bada ere, aurten intentsitate gehiagorekin eman da



Zaporea aldatu arren urak edangarria izaten jarraitzen du

Azken asteotan txorroko urak gusto arraroa izan du, lokats zaporea izan duela esan daiteke. Hau ez da fenomeno berria, Gipuzkoako ur kontsorzioak jakitera eman duenez urtero gertatzen bada ere, aurten intentsitate haundiagoarekin eman da. Dagoeneko urak betiko zaporea hartu du, hala ere, horrelako fenomeno berrien aurrean ez dago larritu beharrik, urak edangarri eta ona izaten jarraitzen du eta.

Patzuergoko arduradunen esanetan, urtegiak ura tenperaturaren arabera mailakatuta egoten da. Udazkenean tenperatura aldaketarekin ura nahastu eta homogeneizatu egiten da. Arazoa, ordea, ez da hor bukatzen. Kontsorzioko kide batek azaldu duenez, Urkuluko urtegiak hartune bakarria izatean, kota horretatik behean zegoen ura

hartu da eta horrek eragin du uraren zapore aldaketa. Hartunea urtegiaren hondotik 10 metrotara dago eta kota horretan dagoen ura da edango dena.

Datorren urtera begira patzuer-goak neurriak hartuko ditu berriro horrelako aldaketarik gerta ez dadin, horretarako karbonoa dosifikatuz.

Azken bi urtetan baino maila altuagoa

Urkuluko ura bere edukaren %70ean beteta aurkitzen da momentu honetan. Honek esan nahi du aurreko bi urtetan baino ur kantitate haundiagoa duela. Iaz %69an zegoen eta orain bi urte %50ean. Sasoi honetarako egoera arrunta erakusten du urtegiak. Gainera, orain negua datorrela kontutan izanik, betetzera joko du. Beraz, normaltasun osoa erakusten du urtegiak.



Lau atxabaltarrek parte hartuko dute Mari Errauskin operan

San Viator ikastolak antolatuta Mari Errauskin opera antzeztuko da azaroaren 22 eta 23an Arrasateko Amaia antzokian. Opera honetan San Viator ikastolako 140 ikasletik gora parte hartuko dute eta horien artean lau atxabaltar izango dira: Itsaso Pagoaga, Miren eta Mikel Igartua eta Jon Uriarte. Lau neska-mutilak ilusio eta gogo haundiz daude orain ia bi urte entsaiatzen hasitako obra antzezteko.

Operan abestu eta dantzatu egin beharko dute eta, tonuak ikastearekin batera horixe izan da euren iritziz zailena. "Zati batzutan balsa ere dantzatu behar dugu eta abestiak eta dantzak, biak batera koordinatzen ikastea zaila izan da".

Egindako lan guztiaren azken fruitua izango da datorren zapatua eta domekan jendeaurrean burutuko dutena. Bi ekitaldiak arratsaldeko 7,30etan izango dira Arrasateko Amaia antzokian.

ORTOPEDIA ORTO + LAGUN

Zu laguntzeko gaude

- Ohe artikulatuak.
- Bañerak, gruak, takatakak.
- komuneko aulkiak, gurpil aulkiak arinak eta elektrikoak.

Kontzezino 2 • ARRASATE • Tfnoa: 79 89 34

OSKAR

HARATEGIA
Loramendi, 1

☎ 79 71 69

GEMES

- Depilazio definitibo
- Makilaia
- Kutisaren garbiketa

Durana, 40-2 ☎ 79 99 18
Aretxabaleta

Hirugarren adinekoentzako harrera familiak

Udaletxeko Gizarte Zerbitzuak Aretxabaletan ere programa hau bultzatzea du helburu

Orain dela urte batzuk Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gizarte Zerbitzuko Departamentuak "Hirugarren adinekoentzako harrera familiak" programa martxan jarri zuen. 60 urtetik gorako pertsoneri arreta emango dien familia batean integratzeko aukera eskaintzea da bere helburua.

Beste herri batzutan izan duen esperientzia aberasgarria kontutan hartuta, Aretxabaletan ere programa hau bultzatzea pentsatu du udaletxeko gizarte zerbitzuak.

Programa honetan familiek, bikoiteek edo eta bakarrik bizi diren pertsonen, bere etxebizitzetan pertsona edadetu bat har dezakete, inolako ahaidetasunik barik. Harrera denboraldi baterako edo iraunaldi luzekoa izan daiteke.

Hartuko den pertsonak 80 urte baino gutxiagokoa izan beharko du, alarguna edo ezkongabea, etxebizitza gabekoa, osasun onekoa eta portaera atseginekoa orokorrean. Harrerako familiak, berriz, 25 eta 60 urte bitartekoak, harreman onekoak auzoan, osasun arazo larri barik eta konprentsiiboak.

Famili hauek hileroko dirulaguntza jasoko dute pertsona edadetu etxean izateagatik, alojamendua, mantenua eta arreta pertsonalak sortutako kostuari aurre egiteko 95.000 pezeta hilean.

Edozein argibide behar izan ezker, edo harrera familia izan edo bertan integratzeko gertu egon ezker udaletxeko Gizarte Zerbitzu bulegora jo daiteke.

Arizmendi topaketak

Gizabidea fundazioak On Jose Maria Arizmendiarrrietaren omenez, bere heriotzaren XXI. urteurrena dela eta Arizmendi Topaketak antolatu ditu.

Topaketa hauetan hiru hitzaldi emango dira. Lehena azaroaren 24an, "Inteligencia, felicidad y valores" Pedro Hernándezek emango du. Azaroaren 26an, Jon Sarasua izango da hizlaria eta honek aztertuko duen gaia, berriz, "On Jose Mariarekin solasean". Azkenik, hirugarren hitzaldia Antonio Cancelo MCCko zuzendariak emango du eta gaia "La formación como base para el desarrollo empresarial de las cooperativas" izango da.

Hitzaldi guztiak Arrasateko Amaia antzokian izango dira arratsaldeko 6:45etan. Ekitaldia irekia da eta interesatzen zaion edonori zabaldua dago.

Leixargarateko aterpetxearen inauguraketa

Pasa den domekan Leixargarateko aterpetxea inaguratu zen. Hainbat konponketa eta berrikuntza egin dira eraikuntzan eta aterpetxeak itxura berritua erakusten du.

Berrikuntza hauen artean, alde batetik, orain artea horrenbeste arazo eman duen komuneko hodia aldatu eta fosa septikoa jarri da.

Eraikuntza barruan, berriz, lurra, sukaldea, leihoak eta beheko sua berriztu dira. Fatxadak ere aurpegi berria erakusten du, ate berria jartzeaz gain fatxada margotu egin baita.

Aldaketa guzti hauez gain, eguzki plakak gehitu beharra



egon da, lehendik jarrita zeuden plakek energia nahikoa ematen ez zutelako.

Aterpetxea UDA taldearena bada ere, honen gestioa Murruxok darama. Bi taldeetako zerbait lagun ibili da berrikuntza lanetan.

Bestalde, aterpetxearen arduradun berria Iñaki Etxeberria izango da, azken honek Alberto Etxeberria ordezkatu du. Aterpetxea erabiltzeko Murruxiori eskatu behar zaio giltza eta gaueko diru kopuru bat ordaindu; Murruxiko eta UDAko bazkide izanez gero merkeago.

IMANOL JANARI DENDA

Harategia
BEREZIKI Urdaitegia
Fruitategia

Gorbea kalea ☎ 79 05 83 ARETXABALETA

Modan dagoen guztia
Iparragirre, 4
Tfnoa. 79 21 24



Orain likidazioan


MIKELOS

Moda Guztia Zuretzat

Iparragirre 3 ☎ 79 36 67
ARETXABALETA

Gellaotarrak atxabaltartu guran

□ Gellaoko 30 auzotarrek onartu dute Aretxabaletara pasatzea. Eskoriatzako Udalak ez du erantzun ofizialik eman baina arrazoiak sendoak izan beharko dutela esan du



Gellaotarrek atxabaltarrak izateko lehen tramitazioak hasi dituzte Eskoriatzako udaletxean

Eskoriatzako Gellao auzoan mugimendua dabil azken hilabeteotan. Auzotarrek Gellao Eskoriatza izatetik Aretxabaleta izatera pasatzea nahi dute eta horretarako lehen pausoak ere eman dituzte: 30 auzotarrek atxabaltar izan nahi dute eta baietza eman dute horretarako.

Bi arrazoi nagusi

Jesus Mari Otxoak Gellaoko auzoalkateak emandako azalpenen arabera, asmo honen arrazoiak bi dira nagusiki: alde batetik, auzotarren eskariak Eskoriatzako udaletxetik izan duten erantzun eskasa aipatu behar da. "Azken zazpi urteetan auzoa urez hornitzeko eskaria egin diogu udalari eta

oraindik ez dugu ezer lortu. Aretxabaletan auzo bat bera ere ez dago urez hornitu barik, eta ez hori bakarrik, bideko edurra ere Aretxabaletako udaletxeak kendu izan du Gellaon". Beste aldetik, Gellaorako bidea Aretxabaletatik dagoela kontutan izanik, gellaotarrek Aretxabaletarekin harreman zuzenagoa dute eta Eskoriatzatik aparte samar gelditzen direla dio Otxoak. Aretxabaletara 2,5 km. dituzte eta 7 km, berriz, Eskoriatzara. "Auzokook Aretxabaletarekin dugu eguneroko harremana, bizimodua, lana, osasun zentrua... bertan egiten dugu dena". Eskoriatzara botoa ematera eta zergak ordaintzera hurbiltzen dira.

Eskoriatzako udaletxean aipatutako aldaketa egiteko lehen tramitazioak hasi dituzte. Normala den moduan, Eskoriatzako Udalak ez du batere begi onez hartu ekimen hori. Azken honek eskaria betetzeko asmoa azaldu du eta uraren gaia datorren urteko aurrekontuetan sartu nahi dute.

Argudio garrantzitsuak eskatu

Bestalde Eskoriatzako Udalak ez du erantzun ofizialik eman, Eskoriatzako auzoalkateak argudioak aurkeztu arte itxaron beharko dutela esan du eta "oso garrantzitsuak izan beharko dutela eskari horri baietza emateko".

Honako kasu hau nahiko bitxia dela esan daiteke, ez baitira horrelako kasu asko gertatu. Dena dela, horrelako prozesuak luzeak eta konplexuak izaten dira, tramitazio ugari egin behar izaten baita. Xabier Mendizabal Aretxabaletako udaletxeko idazkariaren berbetan behin bizilagunen gehiengoak sinatu eta gero, hainbat agiri aurkeztu beharko da bi udaletxeetan. Lehenik eta behin, bi herrietako plenoek onartu beharko dute eskaria eta Foru Aldundiak izango du azken hitza.

Gellaotarrek ez dute samur izango beraien nahia betetzea. Eskoriatzako Udalak, arrazoi sendorik ez badago behintzat, erantzuna ezetza izango dela esan baitu.




Lubia

Oinetakoak

Poltsak • zapatak • gerrikoak

Mitarte 14 • ☎ 79 16 00 ARETXABALETA
Biteri 1 • ☎ 79 66 53 ARRASATE



TABERNA

ARRLUTZ

MITARTE, 16 • ARETXABALETA • TFNOA.: 79 32 34

Hileta elizkizunetan araudi berria

□ Azaroaren 30etik aurrera aldaketak emango dira hileta elizkizunetan

Azaroaren 30etik aurrera arautegi berria egongo da elizako hileta elizkizunetan. Gipuzkoako Elizbarrutiak 1996ko azaroan atera zituen arau berriak eta herrian azaroaren 30ean indarrean jarriko dira.

Aldaketa hauek egiterako orduan lau aspektu zaindu nahi direla aipatu du Don Antonio parrokoak: alde batetik, "hileta elizkizuna ez da familikoei dagokiena bakarrik", Kristau elkarteak ere ospatzen duelako; bestetik, liturgiaren garrantzia azpimarratu nahi izan da eta "igandea kristau herriaren egun bezala salbatu". Azkenik, elizbarrutiak kristau guztiei duintasun berdinez erantzun nahi die, horrela "hileta elizkizun guztiak berdintsuak izan daitezten".

Aldaketak

Aldaketen inguruan, lehenik eta behin aipatu behar da bi hileta desberdin izango direla aurrerantzean: meza eta meza bakoak. Hileta meza abendu, Garisuma eta Pazko igandetan eta jai osoa diren festetan ez da ospatuko. Egun hauetan hileta meza barik egingo da, eukaristia, berriz, berdin mantenduko da eta dagokion



Hileta elizkizunetan ezingo da eliza barrura koroi edo erramu bi baino gehiago sartu


meza hurrengo egunetan egingo da.

Herritar guztientzako duintasun berdina lortu asmotan, eliz barrura lore edo koroi bi sartu ahal izango da gehienez. Parrokiko abesbatzak ez du berezitasunik egingo hiletetan eta parroki honetatik kanpokoek ezingo dute abestu. Bestalde, ezaugarri profanorik ez da onartuko hileta elizkizunetan, ikurrina, dantzariak, bertsolariak, etabar. Honekin batera, egun berean bi hileta gertatuz gero elizkizun bakarra egingo da.

Aldaketa hauen ondorioz, familiak ez du hileta ordaindu beharrik izango aurrerantzean eta elizkizuna dohain izango da.

Antonio Parrokoak ondo irizten die aldaketa hauei, bere ustez "hileta ospakizunak elizarenak dira, kristau elkarteenak eta elizak duintasun berdinez erantzun behar du Kristau guztien aurrean. Gainera, jarraitzen du, "eliza ez da hileta zerbitzua, ospakizun batzuk dituen elkartea baino".

**T
X
i
L
A
R
R
A**



ELIKADURA BEREZIA

Durana, 35
Tfnoa: 79 10 15

Loramendi, 9
Tfnoa: 79 44 28
ARETXABALETA

EXTRA
Deba Garaiko kazeta

**Astearte, ostegun
eta larunbatero
kioskoetan salgai
50 pezetatan**

Nafarroa etorbidea, 23
218 postakutxatila
Tel: 79 82 68
Fax: 79 43 03

BEIRALAN



KRISTALDEGIA

Loramendi 10 ☎ 79 81 78

**Aretxabaletako
industrialdea S.A.**

"ARINSA"

Basabe poligonoa "EO-10"
Tfnoa: 79 62 80
ARETXABALETA



**LOGOPEDIA
ZENTRUA
ARRASATE**

Logopedia eta psikologia tratamendu kliniko eta hezitzaileak haur eta helduentzako.

Erdiko kale, 37-behea
Tel: 79 79 46
ARRASATE



Akordeoi orkestrak maila gorenean

Txalotzekoa da herriko akordeoi orkestrek azken hiru lau urteetan erakutsi duten garapena eta maila altua. Lortutako garaipen desberdinek garbi utzi dute herri mailan akordeoian egin den lana izugarria izan dela. Gauza bat garbi geratu da behintzat: akordeoiak lekua hartu du gure herriaren historian.

Urrun joan barik orain aste bi Strasburgoko ekitaldi bikainaren ondoren, lehen eta bigarren sariekin etxeratu ziren orkestrak. Nagusien akordeoi orkestrak bigarren aldian zuten Europara irtetzen zuena, gazteentzat, berriz, lehen esperientzia izan da.

Irteera honetatik ekarri dute zer kontatu, hala ere, deskantsatzeko denbora gutxi izan dute eta berehala jarri dira martxan. Juan Joseren taldeak hilaren 18an kontzertua eman zuten Galdakaon; Santa Cecilia egunean, berriz, Otxandianora joango dira gazteenak.

Prestigio haundiko lehiaketa

Strasburgoko ekitaldiak merezi du aipamen luzeagoa egitea. "Le Grand Prix International de l'accordéon" izeneko lehiaketak 17. edizioa izan du aurtengoa. Bi urtetik behin antolatzen den lehiaketa Europako lau lehiaketa garrantzitsuenen artean aurkitzen da, prestigio haundikoa dugu beraz. Frantzia, Suitza eta Alemaniak muga egiten duten inguru horretan antolatu izan da, aurtien Strasburgon izan du zita, Bishwiller herrian.

Herriko bi orkestren partehartzeari dagokionez, Juan Jose Orobengoak zuzentzen duen taldea zailtasun ertaineko kategoriara aurkeztu zen, beste bost orkestrekin batera; horien artean gipuzkoar talde bi zeuden: Tolosa eta Trintxerpeko orkestrak, Suitza eta Errusiakoa. Euskaldunek maila bikaina erakutsi zuten, gure herriko taldea bigarren geratu zen.

Erdi mailako kategorian bestalde, Luis Mari Elkorobarrutiaren orkestra, Suitza eta Alemaniakoa izan ziren. Kasu honetan herrikoak izan ziren urrezko saria lortu zutenak.

Sari ederrak lortu arren, Juan Jose eta Luis Mari epaimahaiak eta jende adituak egindako komentarioak balo-



Akordeoi orkestrei ongietorria egin zitzaien unea.

“Musikalki ikasleak motibatzea lortu dugu”

ratzen dituzte, lortutako sariak baino gehiago. Beraien iritziz lehiaketa neurtzeko kriterioak subjektiboegiak izan daitezke, baina “adituek egiten dituzten komentarioak eta hauek pertsonalki esan digutena”, da garrantzitsuena.

Lan eta gogo haundia

1993.an nagusien orkestra sortu zenean eta urtebete beranduago gaztetxoena, norik esango zuen orkestrek gaur egungo maila izatera iritsiko zirenik. Hasierako helburuetariko bat gazte hauen akordeoi fomazioa osatzea eta aldi berean orkestra sortuaz euren arteko giro musikala sortzea zen. Kriterio hauekin sortu ziren orkestrak, bakoitza bere

autonomiarekin baina bata bestearen harrobi izateko. Honekin lotuta esan behar da, gaztetxoek orkestrako partaide batzuk nagusien taldera pasako direla aurki.

Urte hauetan egin den lanari erreparatu eginez eta era berean aurrera begira dauden proiektuak kontutan hartuta, Juan Jose eta Luis Mari baikor eta ilusioz beterik azaltzen dira, nahiz eta batzutan jasan beharreko nekea haundia izan. Gauza asko alde batera utzi behar izan dituzte lortu duten mailara heltzeko. Zuzendari biek onartzen dute beren buruari asko exigitu diotela eta “agian horregatik heldu gara gauden lekura”. Hala ere, aurrerantzean maila hau mantentzea ez dela batere erraza izango badakite.

Dena den, beraien ustez musikaren alorrean ikasleak motibatzea lortu da, gogoia eta beren denbora libre erabili behar izan badute ere horretarako. Azkenik, gurasoen lana eta laguntza ere aipatu nahi izan dituzte, gainera “egindako lanaren balorea ikusten doaz eta hori garrantzitsua da”.

Leintzgain natur etxea

Azaroaren 29an inauguratuko da Almen ikastolak martxan jarri duen natur etxea

Murumendiren magalean, Galartzako abatetxean kokatzen da Almen ikastolak martxan jarri nahi duen natur etxea. Leintzgain izena du eta azaroaren 29an inaugurazio ekitaldia egin eta gero proiektua martxan hasteko gertu egongo da. Ikaslea eta naturaren arteko harremana sendotu asmoz, nekazal mundua, hizkuntza, ohiturak eta artisautza izango dira Leintzgain natur-etxean ikasleak gertuagotik ezagutuko dituen gaiak.



Abatetxea Donostiako Gotzaitegiarena da, hasiera batean 25 urteko erabilpena izango du Almen ikastolak

Natura gertuagotik eta kontestu egoki batean bizi nahi izateak eraman du Almen ikastola honako proiektu hau garatzera. Horretarako, Galartzako abatetxea egokitu eta aurrerantzean natur-etxearen erabilpena izango du. Zenbait gauza zuzenago bizi nahia, "eskola itxia izateak" beste aldetik eraman ditu etxe bat bilatzera Txaro Iraeta Almeneko zuzendariak azaldu digun moduan. "Zenbait proiektu aurrera eramateko orduan eskola oso itxia zela konturatzen ginen eta hortik irten beharra zegoela".

Asmoak errealitate bihurtzea ordea ez da erraza gertatu, "etxe baten ideia pasatu zitzaigun burutik, dio Txarok, eta hala jarri ginen auzoz-auzo begira, azkenik abatetxearen ideia sortu zen arte.

Eliza inguruko jendeaz harremanetan jarri eta Donostiako Gotzaitegiarekin adostasun batera heldu dira: hasiera batean 25 urtetako erabilpena izango du

“Umea eta naturaren harremana sendotzea helburu hartuta hasi ginen lehen urratsak definitzen”

Almen ikastolak, honen esku konponketa eta etxearen mantenu eta ardura geldituz.

Behin etxea lortutakoan bi bidetan zabaldu da eginbeharrekoa: alde batetik etxea nahiko birrindua zegoenez hau goitik behera birmoldatu beharra egon da; proiektu pedagogikoa landu da beste aldetik.

Proiektu pedagogikoa

Bigarren atal honetaz Jon Iñaki Izarzelaiaren arduratu da eta berak kontatu dizkigu proiektuaren nondik norakoak: "umea eta naturaren arteko harremana sendotzea helburu hartuta hasi ginen lehen urratsak definitzen. Alde batetik, gure arbasoek naturarekin zituzten lotura, ohitura, bizitza eta baloreak berreskuratu eta haurren hauekiko sentsibilizazioa sortzea nahi izan dugu". Bestetik, euskal kulturaren, hizkuntza, ohiturak, artisautza eta natura ere kontutan hartu dira. Izarzelaiaren iritziz Leintzgain natur etxea guzti hau lantzeko espazio egokia da, ezagupen eta bizipen zuzenagoa suposatuko baitu.

Guzti hau kontutan izanik hiru gune landu dira: nekazal mundua, astronomia, ortua, elikadura,... hizkuntza eta ohiturak: historia, bertsolaritza, musika, esaera zaharrak... eta azkenik artisautza: bustina, egurra, ehuna...

Leintzgain natur etxean egunero-egunero eta urte guztian zehar egongo dira ikasle taldeak. Jon Iñakiren iritziz “oso garrantzitsua da proiektuari jarraikortasun bat ematea” eta txikienetik hasita DBHra bitartean urtez-urte landuz joango da edukia. Urte batzutan intentsitate haundiagoan eta horren araberara moldatu dira adin bakoitzerako egonaldiak.

Egonaldi guztiak zehaztuta daude. Astean hiru egonaldi izango dira, egun osokoa edo egun eta erdikoak bestela. Azken hauen kasuan lo ere bertan egingo dute hurrek.

Birmoldaketa: guraso, irakasle eta ikasleen lana

Galartzako abatetxea egoera kaxkarrean aurkitzen zen eta goitik behera birmoldatu beharra egon da. Proiektuak diru asko suposatzen zuenez, beste irtenbide

batzuk pentsatzen hasita, gurasoei laguntza eskatzea pentsatu zen. Honen inguruko gogoeta egitean gurasoen borondatea eta laguntza haundia azpimarratzen du Txarok. “Gurasoen laguntza ezinbestekoa izan da, eurek konpondu dute ia erorita zegoen etxea”. Horien artean batzuk klabe izan dira, teknikoak eta ofiziodunak gaia zuzendu dute, baina guztira 100 bat gurasok hartu du parte. Borondatezko lan honen garrantzia gaineratzen du zuzendariak: “gaur egun oraindik ere jendea prest

“Gurasoen laguntza ezinbestekoa izan da, eurak konpondu dute eta, ia jausteko zegoen etxea”

dagoela ikusten duzu horrelako gauzetarako eta hori oso pozgarria da. Eta ez hori bakarrik, giro ona sortu da guztion artean, gurasoak eurak ere esaten zuten zein gustora ibili diren”.

Lan honen ondoren etxearen egitura zelan gelditu den esatea gelditzen da. Hiru pisu ditu: lehen solairuan jangela eta sukaldea dago; bigarrenean tailerrak eta gorengo pisuan logelak.

Proiektua gauzatuta dago eta azken ikututxoak egitea faltako den arren, azaroaren 29an inaugurazio ekitaldia egingo da. Goizeko 11etan prentsaurrekoa egingo da Galartzako Leintzgain natur etxean bertan eta jarraian ekitaldi ofiziala.

Ekitaldiaren ondoren hurrek lehen bizipenak izateko martxan jarriko da natur etxea. Almen ikastolaren bizitzan etapa garrantzitsua izango da hau, dio Iraetak.



JOSU HARATEGIA
 Urdaitegia-Gozotegia
 kroasantegia
 Janari prestatuak
 Mitarte, 1 ☎ 77 03 08


MAPFRE
 Aseguroak
 Errekabarren, 3
 Tfnoa: 77 11 76

IRIARTE

Umeen denda
 Durana, 8 Aretxabaleta
 Tfnoa: 79 10 96

GARBITU S. KOOP
Garbiketa orokorrak
 Errekabarren 3- Behea
 Tfnoa: 79 01 28

Mendi astea

Aurtengo mendi astearekin batera Murruxok bere 10 urteak ospatuko ditu.

Azaroaren 20tik 30era luzatuko den mendi astean, mendiarekin lotuta dauden hainbat ekintza antolatu dira. Gaur osteguna botako da lehen emanaldia Zaraia zineman. Bertan Jose Ramon Aguirre "Marron"-ek Indonesia Carstels piramideei buruzko saioa eskainiko du.

Bihar, hilak 21, Joseba Ugaldek "Izotza eta elurra pirineotan" emanaldia emango du gaueko 10etan Zaraia zineman.

Proiektzioekin jarraituz, hilaren

26an Juantxo Agirreren eskutik Aretxabaletako trikuharrien inguruko hitzaldia izango da arratsaldeko 7,30etan Zaraia zineman.

Hurrengo egunean, egunean, "Chamonix Zermat eski trabesia" titulupean proiektzioa botako da arratsaldeko 7etan Zaraia zineman.

Eguakotxean, "Pamir-eko bihotzean" saioa eskainiko du Felipe Uriartek gaueko 10etan.

Azken proiektzioa Iñurrategi anaia izango da. Beronek itxiko du mendi astea azaroaren 30ean "Broad Peak" emanaldiarekin.

Proiektzioez gain bestelako ekin-

tzarik ere izango da mendi aste honetan. Zapatuan, hilak 22, rokdromo jarriko da herriko plazan egun gutian zehar. Hurrengo zapatuan, mendi bizikleta irteera izango da, herri mailakoa, irteera goizeko 9etan partenoitik. Egun horretan bazkaria egingo dute Murruxokoko kideek. Domekan, berriz, hilak 30 mendi irteera Anbotora, goizeko 8etan.

Mendiarekin lotutako ekintza ugari izango ditugu datozen egunetan herrian. Bertan parte hartzeko aukera zabala izango da guztientzat.

Atxabaltar ugari Behobia-Donostia lasterketan

Azaroaren 9an ospatu zen Behobia-Donostia 20 km.tako proba herrikoa. Aurtengo edizio honetan ere atxabaltarren presentzia azpimarratzekoa izan da: guztira 29 herritarrek hartu du parte.

Hona hemen sailkapena:

120. Kepa Urria	1:12:27	5367. Javier Mar	1:44:05
Xabier Sarasua	1:20:00	5450. Juan Antonio Barato	1:44:27
963. Joseba Gonzalez	1:22:40	5516. Floren Elortondo	1:44:46
1012. Fernando Uribesalgo	1:22:58	5527. Jose Revuelta	1:44:49
2095. Felis Beltran de H.	1:27:21	5529. John Nelson	1:44:49
2617. Mikel Uribetxeberria	1:32:08	7236. Rosa Ojuel	1:52:53
2691. Andoni Miguel	1:32:37	7244. Javier Martinez	1:52:55
2708. Jesus Lonbide	1:32:43	7301. Iñaki Mendizabal	1:53:26
2949. Fran Miguel	1:33:47	7423. Fernando Berrizbeitia	1:54:10
3374. Iñigo Gastañaga	1:35:42	7465. Mertxe Lopez	1:54:25
3394. Josu Urkia	1:35:50	7586. J.J Irure	1:55:04
3427. Javier Etxebarrieta	1:35:58	7643. Martin Perez	1:55:25
3664. Angel Etxabe	1:36:53	8071. Anabel Aranzadi	1:58:24
4275. Iñaki Etxeberria	1:39:52	8077. Jabi Garcia	1:58:25
4350. Jon Iregi	1:40:08		

Jauregi Okindegia

Otalora, 10
Aretxabaleta



Lurrindegia
Opari-denda

LEIBATZ ARRAINDEGIA




Mitarte Kalea, 1 - Tfnoa: 77 13 79
ARETXABALETA

SAGASTA

ELEKTRIZITATEA

Elektragailuak
Elektra-instalaketak

Otalora, 14
Tfnoa: 79 16 10



• Nekazalturismo etxea
• Bertako sukaldaritza

Arientza auzoa • Tfnoa: 79 17 51
ARETXABALETA

EGUZKIGRAF
inprimategia
ARETXABALETA
Industrialdea F-0-4
Tfnoa: 791844
Faxa: 792941

Xabi Lasagabaster

“Atezain baten lana atea zaintzea baino zeozer gehiago da”

Kurtzebarri eskolan eman zituen futboleko lehen pausoak. Ondoren kadete, jubenil eta erre-gional mailetatik pasatu ondoren, aurten UDAko preferente taldera igo du. Taldeko atezaina dugu momentu honetan.

Ostalaritzako ikaske- tekin batera futboleko bu- rubelarri dabil 19 urteko gazte hau.

• **Nolako saltoa izan da UDAko gorengo taldera igotzea?**

Taldekide asko ezagutzen nuen lehenagotik ere. Aldaketa ez da hain handia izan, erreg- ionaletik preferentera jokalarien maila ez da horren desberdina. Motibazio aldetik, berriz, aldaketa nabarmena igarri dut. Preferente taldea herriko talde garrantzitsuena da eta aspektu guztietan garrantzi gehiago ematen zaio. Beste motiba- zio bat sortzen da bertan jokatzean.

• **Aurten etxean partidu guz- tiak irabazi dituzue, kanpoan puntu bakarria lortu. Zer gerta- zen da?**

Hori esatea zaila da. Taldean berba egin dugu hortaz eta beharba- da kanpoko partiduetan motibazioa falta zaigu. Normalean, kanpoan jokatzen dugunean, galtzen hasten gara eta honek morala jeisten du.



Kanpoan gehiago motibatu beharra daukagu puntu batzuk lortzeko. Bestalde, etxean bakarrik irabazi dugula kontutan hartuta, taldea nahiko ondo doa klasifikazioan.

• **Aurtengo helburua hiruga- rren mailara igotzea da. Nola ikusten duzu?**

Lehenengo postua urrun dago, Eibarrek diferentzi handia atera digu gainontzeko taldeoi. Bestalde, bigarren dagoen Aloña Mendi tal- detik 4 puntutara bakarrik gaudenez, aldaketa handiak gerta daitezke. Oraindik denboraldi luzea gelditzen zaigu jokatzeke.

Esan beharra dago, Preferentean ekipo faborito asko dagoela gora

igotzeko: Iaz jeitsi ziren Urola eta Oñati, Mondra, Eibar...

• **Atezain batek atea zaindu baino zeozer gehiago egin behar du?**

Bai, atezainaren lana garran- tzitsua da taldean. Bereziki defentsarekin ondo konpondu behar du eta berba egin, agindu. Defentsari ziurtasuna eman behar dio eta era berean defentsak atezainari. Atezainak leku pribilegiatua du zelaian, bertatik beste jokalariek baino hobeto ikusten ditu jokaldiak eta pozizioak.

Gaur egungo arau berrie- kin atezaina beste defentsa bat mo- duan da bere taldekideentzat, hankekin gero eta gehiago jokatu behar baitugu.

• **Inbidiarik ematen du zelaiko gainontzeko jokalarien jokoak?**

Gehienbat gola sartu eta ospa- tzen dutenean bertan ezin egotea faltan botatzen da.

• **Eta zuretzat zein da gustoko atezaina?**

Garai bateko idoloak Iribar eta Arkonada izan ziren. Iribarren joko- ez nuen ezagutu, baina bai Arkona- darena. Mitoak izan direla esan dai- teke. Gaur egun atezain on asko dago, baina ez da beharba- da inor bereziki nabarmentzen. Atletikeko atezaina, Imanol Etxeberria, oso ona da eta baita Alberto Errealekoa ere.

LASA AGUILERA
Aholkularitza

- Fiskala
- Kontablea
- Juridiko/laborala

Andra Mari Auzunea, 3
☎ 79 29 26

AMETS TABERNA

Iparragirre, 4
Tfnoa: 79 01 29
Aretxabaleta

SEGUROS LAGUN ARO ASEGURUAK

Euskadiko Kutxa
Taldekoa

Errekabarren, 20 behea
20.550 Aretxabaleta (Gipuzkoa)
Tfnoa: (943) 79 77 00 - 79 78 11

MEMESA S.L.

Industriaren alde

Santa Kurtz, 25-27
Tfnoa: 77 11 75
ARETXABALETA



Donostiako Antiguano jaioa bada ere, Aretxabaletan bizi da gaur egun Kepa Azkue. Bera dugu herriko bake epailea eta baita UDA futbol taldeko jokalaria ere. Injeneritza ikasketak egitera Arrasatera etorri, neska bertan bilatu, ezkondu eta Aretxabaletan bizi da 29 urteko antiguotar hau.

• Zer egiten du Donostiar batek Aretxabaletan?

Jende askok esaten dit, beste batzuk Donostia eta horrelako hirietara bizitzera joateko gogoz daude eta ni hona etorri.

• Aldaketa haundia da Donostiatik ona etortzea?

Egia esan Antigua herri txiki bat modukoa da eta ez dago horrenbeste

“Aretxabaleta herri lasaia eta euskalduna da”

aldaketa.

• Aretxabaletara etorri eta nola hasi zinen bake epaile lanean?

Lagun batek esan zidan postua zegoela eta gustatu egin zitzaidan.

• Lan asko egin duzu orain artean?

Aurreko astean izan nuen lehen ezkontza. Bestela astean zehar orduerditxo bat erabiltzen dut nire lana egiteko, papelak firmatu... testigo lana azken finean.

• Eta UDA taldean nola hasi zinen?

Hasieran Mondran jokatu nuen, gero UDAn jokatu nahi nuen galdetu zidaten. Egia esan, animatzeko ez dut asko behar.

• Aurrean jokatzen duzu, sartu duzu golik?

Aurten bakarra, gutxi jokatu dut, lesionatuta egon naiz eta.

• Zer ematen diozu taldeari?

Asko burrututzen duena izan naiz, mugimenduak ondo ikusten ditut. Orain esperientzia ere badut.

• Momentu honetan zer ikastea gustatuko litzazuke?

Musika alorrean gitarra eta bestela fisioterapeuta ikasketak, eukitzen ditugun lesioen eta minen inguruan gehiago jakiteko.

• Biziorik?

Jatea.

• Angulak edo txuleta?

Txuleta on bat.

• Astebukaeretan zer egiteko ohitura duzu?

Futboleko partiduak izaten ditut, bestela deskantzatu edo Donostia aldera joan...

• Egin dizuten opari polit bat?

Nire ezkontzan lagunek aureskua dantzatzea.

• Zer moduzko herria da Aretxabaleta bizitzeko?

Lasaia eta oso euskalduna.

• Gomendio bat.

Zoriontsu bizi, besteak bakean utzita.

• Eta erraza da zoriontzu izatea?

Ez, erraza izan beharko luke, baina gizakiak asko konplikatzen ditu gauzak.

• Zein kontzertutara joango zinake gustora?

Peter Gabrielen. Egon naiz eta ostera joango nintzateke.

• Liburu bat?

“El clan del oso cabernario” Jean Marie Hauel-ena.

• Eta bukatzeko irla batera zer eramango zenuke eta zer ez?

Beste pertsona bat eramango nuke, andrea adibidez. Zibilizazioko ezer ez nuke eramango.

KOMIKIA

EGUNEKOTUAK GAUDE JADA

Mikel Arroiabe





S

anta Cecilia musikarien eguna gertu daukagu, datorren zapatuan, hilak 22 ospatuko da. Gaurko

honetan, musikaren mundura hurbildu eta 50. hamarkadako argazkia ekarri dugu gogora.

Despedida bateko argazkia da, Don Leandro Zaloña baserriko abadea Ecuadorreko "Los Rios"era joan aurretik egindakoa. 1956ko abuztuan egin zitzaion aipatutako despedida, garai hartan hainbat sari irabazitako "Andra Mari korua", izan zen agurreko ekitaldian.

Don Leandro abadea Zaloña baserrian jaio eta etxetik gertu egon zen abade, Untzilan hain zuzen ere. Ondoren betirako agur esanda Ecuadorrera joan zen, gehiago itzuliko ez zenaren ustetan. Baina kanpora joandako beste batzuk moduan, hau ere itzuli zen eta gaur egun Urkiolako Santutegian dago.

Argazkian lehen aipatu dugun moduan "Andra Mari korua" dotore azaltzen zaigu, emakume guztiak soineko txuri eleganteekin jantzita. Erdian Don Bitoriano abarea, gainontzeko denak moduan gazte-gazte, izan ere aspaldiko argazkia da, orain 41 urtekoa.

Argazkian ezkerretik hasita: **Mertxe Bengoa, Duni Zuazabeitia, Benita Zubizarreta, Margari Mendiguren, Mari Erce, Mari Zabala, Angelita Ibarzabal, Lurdes Bengoa, Cecilia Olabe, Pili Larrañaga, Mari Carmen Unanue, Don Bitoriano, Ana Mari Ibarzabal, Francisca San Miguel, Angelita Larrañaga, Miren Igartua, Fermina Gabilondo, Bene Bengoa, Mari Tere Etxeberriarteun, Arantza Uribetxebarria, Miren Urreta, Consuelo Olabe, Mari Sol Altuna, Clotilde Zubizarreta, Miren Zuazabeitia, Txaro Urreta, Belen Madinabeitia, Maria Josefa Uribetxebarria.**

Informazioa eta argazkia: Duni Zuazabeitia.

BR Amaia-Berri, S. L.

Gasa- Klimatizazioa-Isurkor Teknologia

Otalora, 18 behea

Tfno-Faxa: 77 06 49 ARETXABALETA

DOIKALSE

Elektroerosio
lanak

Basabe Poligonoa C-1-1

Aretxabaleta

Tfno: 79 82 44

ARGAZKI

Urkiola

Tfnoa: 79 39 20

ARETXABALETA

Koloreak



Mendi kontuekin jarraituz, esan behar da, **Iñurtegi anaiek** Zelanda Berriko Cook mendia igo dutela eta baita tontorra zapaldu ere. Lehen euskaldunak izan dira tontorra egiten. Halako abiaduran jarraitzen badute laster notizia emateko astirik ere ez dugu izango.

Mendia alde batera utzita, **Maria Agirre** izango da Arrasate Presseko zuzendari berria. Maria orain dela lau urte hasi zen aldizkarian lanean. Orain kontuz ibili beharko du, "El Mundo"-ko zuzendariari gertatutakoa ikusita...

Jakingo duzue Arrasateko San Viator ikastolak Mari Errauskin opera prestatu duela. Ba... bertan atxabaltar gazte batzuk ere hartuko dute parte: **Miren eta Mikel Igartua, Itsaso Pagoaga** eta **Jon Uribe**. Garai bateko herriko abeslari ezagunari, Altuberi, ez zaio jarraitzailerik falta.

Zapatu honetan "Leintz Bailarak 500 urte Gipuzkoan" ospakizunak egingo dira. Alkate, auzoalkate, zinegotzi... hainbat ekintza ofizialen ondoren mahai baten inguruan bilduko dira bazkaltera. Ez legoke txarto, garai bateko Leintz Bailara famatu bihutu zuen Bainuetxeko ur-iturrien egoera kaxkarrak berba egingo balute. Denok dakigu bazkari on baten ostean eta patxaran kopatxo bat esku artean dugunean, ideia txukun asko sortzen dela.

Astebukaerarako, San Martin ondorengoak dastatu eta bizitza sanoaren aldekoak zaretenok hor duzue Donsotiako maratoia.

Koloreak dira udazkenaren ezaugarri, eta kolore horietaz gozatzeko, onena menditik bueltatxo bat ematea izaten da. "Pasea" bukatuta badin badago hobel bestela kontuz ibili.

Jakingo duzue Leixargarateko aterpea berriztu egin dute eta arduraduna ere aldatu dute: **Alberto Etxeberriak Iñaki Etxeberriari** pasatu dio testigua. Ez dakit Etxeberria izatea derrigorrezkoa den, ala kasualitate hutsa izan den.

Murruxokoe mendiko astea prestatu dute eta beraien programan aspaldiko argazki bi agertzen dira. Azalekoa Orkatzategin 1955eko urtarrilaren 16an ateratakoa da eta bertan **Miguel Igartua, Paul Zuazabeitia, Karmelo Igartua eta Mariano Otero** azaltzen dira. Barrukoa, berriz, Anboton 1959eko uztailaren 25ean ateratakoa da eta bertan agertzen dena: **Benito Gastañaga**.

A R E T X A Z O K A

LANA

- Emakume bat behar da ume bi zaindu eta etxeko lanak egiteko. 79 65 48 (arratsaldeko 7etatik gaueko 10etara deitu).
- Ingeles, gaztelera eta euskerazko itzulpenak egiteko pertsona bat behar da. Tfnoa: 79 25 75.
- Pisu bat alokatuko nuke. 71 42 86 Jabierregatik galdetu.
- Zeramika tailerra ipintzeko lokala alokatu edo antzeko lanbidea duen norbaitekin banatuko nuke. 71 42 86. (Jabier).

DENETARIK

- Betaurreko graduatuak galdu nituen. Urriaren 11ko gauean. Aurkitu dituenak deitu mesedez 79 75 35 telefonora.

Zure iragarkia honako txoko honetan jarri nahi baduzu deitu 79 01 05 telefonora. Dohainik da.

ETXEBIZITZA


- 160 m²-ko pabiloi industrialak alokatu egiten da, Aretxabaletako Basabe poligonoan, interesatuak deitu honako telefono hauetara: 79 28 41-79 74 37.



ANACONDA

ZUZENDARIA: Luis Llosa.

AKTOREAK: John Voight, Jennifer Lopez, Eric Stoltz, Ice Cube, Jonathan Hyde, Kari Wuhrer, Owen Wilson.



Grabaketa talde bat espedizioa osatu eta Amazonasera joan da bertan bizi diren Shirishama indio legendarioak bilatu eta ezagutzeko, talde honetaz oso gutxi ezagutzen baita. Bidean urtetan oihanean bizi izan den Paul Sarone gizon misteriotsuarekin topo egingo dute. Saronek idioen ezagupena duela eta beronekin jarraituko dute bidea. Baina Saronen asmoak bestelakoak dira. Honek 12 metroko anaconda erraldoi baten aztarnak jarraituko ditu, pizti erraldoia eta zakarra. Hortik aurrerakoa anaconda honekin izango dituzten topaketa desberdinetan oinarritzen da.

Z A R A I A Z I N E M A

Azaroak 22, 23, 24

ANACONDA

Azaroak 23 (Umeentzat)

BEVERLY HILLS NINJA LA SALCHICHA PELEONA

Ordutegia:

Eguakotxa-zapatua: 10,15

Domeka: 5etan (Umeen sesioa)

7,30

10,15

Astelehena: 10,15

Oharra: Azaroaren 21, 28, 29, 30 eta abenduaren 1ean ez da zine emanaldirik egongo mendiko proiektzioak direla eta.

Liburutegiko txokoa

Azken aldian liburu berri mordoak sartu da Udal liburutegian eta oraingoan nobeletan sartu diren batzuk aipatuko ditugu:

- Allende Isabel
"Afrodita: cuentos, recetas y otros afrodisíacos".
- Cartwright, Justin
"Soñando con los masais".
- Chopra, Deepak
"El retorno de Merlín".
- Cook, Robin
"Contagio".
- Crichton, Michael
"Twister".
- Forsyth, Frederick
"El manifiesto negro".
- Grisham, John
"El jurado".
- Higgins Clark, Mary
"Noche de paz".
- Jacq Christian
"Ramsés: La batalla de Kadesh".
- Kureishi, Hanif
"El álbum negro".
- Ludlum, Robert
"Los guardianes del apocalipsis".
- Lustbader, Eric
"Segunda piel".
- Maestre, Pedro
"Matando dinosaurios con tirachinas".
- Mosley, Walter
"Blues de los sueños rotos".
- Prado, Benjamin
"Nunca le des la mano a un pistolero zurdo".
- Rei, Pepe
"Intxaurrondo, la trama verde".
- Shmueli, Alfred
"El harén de la sublime puerta".
- Tamaro, Susana
"Anima mundi".

Joseba Lopez de Armentia

BENGOA URDAITEGIA

Bertako okelak eta mortzilak

Durana, 9
Tfnoa: 79 19 79

INDUSTRIA
HORNIKUNTZAK



Mitarte, 23 Aretxabaleta
Tfnoa: 79 96 66
Fax: 77 10 33

Zure
publizitatea
hemen

79 01 05
Aretxagazeta

OSKAR GARAJEA

Basabe Poligonoa, A-2-4
Tfnoa: 79 98 74
ARETXABAETA

Dorleta Taberna

Loramendi, 8
Tfnoa: 79 94 15
ARETXABAETA

**EXPRESS
AKEITEGIA**

Santa Kurtz, 16
Tfnoa: 79 23 43

G U R E A

*taberna
jatetxea*

Durana kalea
Tfnoa: 79 20 64

*Etxabe
harategia*

Durana 4
☎ 79 16 61


**Mobiliario
ARENAZA**

ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tfnoa: 79 08 07
ARETXABAETA

**KIXKOR
TABERNA**

Mitarte 13 ☎ 79 20 60
Aretxabaleta



ARGI-PLASTIC

Leihoak egiten dira

Zigarrola, 1 8. pabiloia
ARRASATE Tfnoa: 77 11 30

AZAROA

21

egukotxa

HITZALDIA

Gaia: **Homosexualitatea.** Euskal Herriko egoera.

Gazte asanbladak antolatuta. Urbaltz elkartean gaueko 10etan.

PROIEKZIOA

IZOTZA ETA ELURRA PIRINEOTAN.

Joseba Ugaldek emango du. Gaueko 10etan Zaraia zineman.

22

zapatua

**LEINTZ BAILARAK 500 URTE
GIPUZKOAN**

“Leintz Bailarak 500 urte Gipuzkoan” Goizeko 11etan erakusketa irekiko da Eskoriatzako kultur etxean. Ondoren oroitzapeneko ekitaldia egingo da eguerdiko 12,30etan Azatzako Otalora jauregian. Ondoren luncha.

**ROKODROMOA HERRIKO
PLAZAN.**

22, 23

MARI ERRAUSKIN OPERA

San Viator ikastolak Juan Arzamendiren zuzendaritzapean antolatutako Mari Errauskin opera ikusgai egongo da Arrasateko Amaia antzokian. Arratsaldeko 7,30etan.

23

domeka

KONTZERTUA GAZTETXEAN
“NICK TWILLEY” perkusio taldeak kontzertua eskainiko du Aretxabaletako gaztetxean gaueko 9,30etan.

24, 26, 27

ARIZMENDI TOPAKETAK

Gizabidea Fundazioak hiru hitzaldi antolatu ditu. Azaroaren 24an

“**Inteligencia, felicidad y valores**” Tenerifeko “La Laguna”

unibertsitateko **Pedro Hernández** izango da hizlaria.

Azaroaren 26an, “**On Jose Mariarekin solasean**” hitzaldia **Jon Sarasuak** emango du.

Azkenik azaroaren 27an, **Antonio Caceloren** hitzaldia “**La formación como base para el desarrollo empresarial de las cooperativas**”.

Hiru hitzaldiak Amaia antzokian izango dira 18:45etan.

26

eguztina

HITZALDIA

Juantxo Agirrek emanda Aretxabaletako trikuharrien inguruko hitzaldia. Arratsaldeko 7,30etan Zaraia zineman.

◆ Parrila
espezialitatea



GOYARAN ERRETEGIA

27

egüena

PROIEKZIOA

CHAMONIX ZERMATT ESKI TRABESIA.
Arratsaldeko 7,30etan Zaraia zineman.

28

egüakotxa

PROIEKZIOA

PAMIREKO BIHOTZEAN. Felipe Uriarteren eskutik. Gaueko 10etan Zaraia zineman.

29

zapatua

III. MENDI BIZIKLETA MARTXA

Aretxabaletako inguruetatik. Goizeko 9etan.

**LEINTZGAIN NATUR-ETXEA-REN AURKEZPENA**

Almen ikastolak garatutako proiektuaren aurkezpen ekitaldia. Goizeko 11etan prentsaurrekoa Galartza Leintzgain natur-etxean. 12etan harrera ofiziala.

TAKOLO, PIRRITX ETA PORROT

Eskoriatzako pilotalekuan arratsaldeko 5etan. Sarrera 200 pezeta.

ANTZERKIA

Aratz atzeratuen aldeko elkarteak antolatuta Ttanttaka taldearen eskutik Raymond Cousse-ren "UMEKERIAK" antzezlanaren egongo da ikusgai. Azaroaren 29an gaueko 10etan Zaraia zineman.

30

domeka

MENDI IRTEERAK

Murrukixo M.E. Goizeko 8etan herriko plazan. Anbotora. Zaraia M.T. Zaraiatik Itzulia. Ondoren babajana.

IÑURRATEGI ANAIEN**PROIEKZIOA. "BROAD PEAK".**

7,30etan Zaraia zineman.

MENDI ASTEA

Murrukixon 10. urteurrenarekin batera ospatuko da aurten mendiko astea. Proiektzioak, mendi irteerak, bizikleta irteerak eta mendiarekin zerikusia duten ekintzak izango dira egitarauan.

Argazkia (M.Igartua):

Orkatzategi. 1955eko urtarrilak 16.

Migel Igartua, Paul Zuazabeitia, Karmelo Igartua eta Mariano Otero.

**BEHARREZKO TELEFONOAK****Aretxabaleta**

• Almen	71 49 07
• Aretxagazeta	79 01 05
• Basotxo	77 09 81
• Euskaltegia	79 21 68
• Gizarte-Laguntzailea	79 10 00
• Hezibide Elkarte	79 31 32
• Industrialdea	79 62 80
• Kiroletxea	79 64 61
• Kultur-Etxea	79 01 05
• Kurtzebarri Eskola	79 00 49
• Leniz Lanbide Esk.	79 79 00
• Liburutegia	79 10 00
• Loramendi E.E.	77 09 70
• Ludoteka	79 05 81
• Murrukixo M.E.	79 93 74
• Musika Eskola	79 36 50
• Ortzadar	79 01 84
• Osasun zentroa	79 74 58
• Otorora	79 79 99
• Parrokia (Bulegoa)	79 18 42
• Pausoka Haur-Esk.	77 03 77
• Postetxea	79 28 31
• Santa Rita Ikastetxea	79 17 00
• Taxi Geltokia	79 22 33
• Udal Bulegoak	79 10 00
• Udaltzaingoa	79 10 52
• Urats Gain	79 99 11

Udaltzaingoa

• Arrasate	79 14 39
• Bergara	77 91 06
• Eskoriatza	79 03 22
• Oñati	78 04 11

Denetarik

• Eskualde-Ospitalea (Arrasate)	79 53 00
• Ertzaintza (Arrasate)	79 71 99
• Gurutze-Gorria (Bergara)	76 55 76
• Larrialdiak (Arrasate)	77 10 43
• Pesa	902 10 12 10
• Renfe (Gasteiz)	23 20 20
• Renfe (Zumarraga)	72 15 15
• SOS Deiak	088
• Suhiltzaileak (Oñati)	79 28 00



Basabe Poligonoa A-15

☎ 79 34 28

ARETXABALETA

CONSUM EROSKI

BETI ZURE ZERBITZURA

Durana, 8

Tfnoa: 79 19 34

Aralar z/g

Tfnoa: 79 16 05

ARETXABALETA

ITURGINTZA**J.J**

Tfnoa: 79 07 34/ 79 31 87

HAU DA NAGUSITASUNA

ALBOKO AIRBAGS SISTEMA BERRIA.
MONDEOK BABESTEN ZAITU.



Norbere kontrolatik ihes egiten duten egoerak daude. Horregatik Mondeo berriarentzat alboko airbags-ak diseinatu ditugu.

Baina hori ez da Mondeo berriak babesteko egiten duen guztia. Ziurtasunean harantzago doa.



Estruktura integrala, deformazio guneekin eta aurrealde barra indartzailearekin. ABS balaztatze elektroniko banaketarekin edo ABS trakzio kontrolaz. Aurrealdeko suspentsio independentea eta atzealdeko Quadralink suspentsio sistema. Segurtasun uhal ainguraketa eta pretensoreduna.

Mondeo HAU DA
NAGUSITASUNA

2.426.000 pta.tik aurrera

MUGARRI

Araba Etorbidea, z/g • ARRASATE
Tel: 79 07 44 / 54
Faxa: 79 62 54

